

Euskal literatura eta iraultza, eman dezagun

Halako asteazken batez, eta Euskadi alaitu eta borrokan kementsu kanpainaren barruan, mahai-inguru interesgarri bat eskaini zen Donostiako Udal Liburutegiko lokaletan. Eta interesgarria diogu, aldez aurretik erakusten zuenari kasu eginez, batik bat. Txillardegi, Patri Urkizu eta Joxe Auxtin Arrieta ziren hizlari, Josu Landaren moderatzaile-paperaz, eta aldez aurretik espero zitekeen interes hori azkenerrako apur bat kamuztua gertatu zela aski sentimendu jeneralizatua izan zen, eta ez Eginoko kazetari begioker batek hain modu sinplista bezain erratuz adierazi zuenagatik (guztiak adskripzio politiko berekoak izateagatik), gure ustez gaiari alderdi bakarretik baino ez ziotelako heldu baizik, antolatu izan diren beste hainbat mahai-inguru nahiz elkarriketetan heldu ez zaion bezalaxe.

*Ondoren, beraz, hiru hizlari horiek esan zutenaren transkripzioa eskainiko dizuegu, dokumentu gisa baliagarria delakoan eta haiek mintzatutako ordenu berean. Finean, geure kasa moldatutako ohar batzu argitaratzen ditugu, gure ustez gaia hobekia-
go enfokatzen lagundu dezake-
telakoan.*

Txillardegi

Bueno, nik ez dut idatzirik ekarri, uste bait dut askoz biziago gertatzen dela horrela hitzeginda.

Nota batzu besterik ez ditut egin, beraz. Nik esango nuke hasteko beste lanbidetan —gauza ezaguna denez— posible dela (nolabait esateko) pribatutasuna. Eman dezagun, fisiko batek edo mediku batek... horrelako pertsona batek bere lanbidean ez dauka halako publikotasunik. Eztabaida liteke bere ideiek eta bere jarrekek noraino duten inpakto publikoa, edo inpakto politikoa.

Idazle baten kasuan, halere, ez da horrela gertatzen. Idazle batek ideiak erabiltzen ditu eta, noski, ideiak erabiltzen baditu hauek kanporatzeko izaten da, nolabait esateko. Idazlea berez bere lanbidean besteentzat ari da, eta noski pentsa liteke batek egin dezakeela lan bat beretzat pribatuki —eta zenbait kasu famatutan gertatu izan da—, baina normalean gauza horiek kanporatzeko izaten dira. Eta kanporatzeko baldin badira, horrek esan nahi du idazlea berez dela izadi publikoa. Niretzat hori oso inportantea da beste lanbidetan ez delako hori gertatzen.

Euskal idazlea, nahi ez badu ere, zapalketa giro batetan bizi. Hori ez dugu dudan jarriko: gure herria zapalduta dago, eta zapalketa hori beti aipatzen diren bi maila horietan ikusten da oso argi: herri honi bere indar politikoa ukatu zaio, eta herri honi bere fruitu eta ondorio ekonomikoak ere kendu egin zaizkio. Zapalketa bikoitz hori hor dagoela, euskal idazle batek idazten du beti kon-testu horren barruan.

Idazle batek, beraz, lehenengo hautaketa hemen egin behar du: euskaraz idatzi ala erdaraz idatzi. Hori ez da neutroa, oso ondorio politiko nabarmenak ditu. Bi hizkuntza horiek ez daude gaur egun maila berean eta beraz hizkuntza batetan edo bestean egitea oso diferentzia da: kasu batetan inperialismoaren hizkuntza onartu eta bultzatzen da, eta bide batez bertako hizkuntza zokoratzen da, eta bestean alderantziz, herri zapaldu honen hizkuntza hartzen da eta inperialismoaren hizkuntza baztertzen den momentu bere-tik beste bide politiko bat hautatzen da, hortaz neutraltasunik ez dago.

Hor daude beraz espainiera hautatu dutenak, horietaz esan beharrik ez dago zein bandoa hautatu duten, eta besteez, euskaraz zergatik idazten duten ez dakitela esaten duten besteez, zer esango dut?, nik benetan ez dut ulertzen.

Hizkuntza batetan edo bestean idatzi, hori zein lehenengoa, eta orduan azaltzen zaigu bigarren galdera: zer idatzi? Honetaz eta guk bizi dugun zapalketa giroan, eta giro hau ez daukat esplikatu beharrik, hemendik atera besterik ez dago aviekin eta horiekin topatzeko, ba, giro honetan esatea «ni istilu horietatik gainean jarri-ko naiz», hori, «goitik» hitz egin edo idatzi, hori nagusi denak egin dezake, baina zapalduta dagoenak ez dauka egiterik, ez baldin bada tximukeria hutsean.

Hortaz hemen idazten duenak edo idazten du zapalduta da-

goen herri honen aldetik, hau da nik idazle batek egin beharko lukeena uste dudana, edo bestela esaten badu, badakigu zer den, azken finean horiek zanpatzaileen jokua berritzen dute, horrek daukan ondorio guztiekin. Sartrek idazle horietaz esaten zuen «ce sont des amuseurs», nolabait esan, dibertitzaileak dira; paiasoaren funtzioa betetzen dute, jendea dibertitzen dute, dagoen problematika izkutatzen dute eta kontradikzioak disimulatuz *status quo*-ren alde lan egiten dute. Ez dira neutroak baizik eta «eskuineko apolitikoak» esango genuke.

Hori kasu batzutan; bestetan gertatzen da idazleak bihurtzea agintea dutenen morroi leialak. Orduan idazlea ideologia nagusiaren portaboza bilakatzen da.

Idazle batek zer egin beharko luke orduan? Nire ustez dagoen injustizia salatu beharko luke. Poliziaren salakuntza egitea normalago da, orain egin behar da erreformaren salakuntza ere, erreformaren gezurraren salakuntza, ondo dakigu eta zer den honezker. Beraz hemengo idazle batek ezker abertzalearen ikuspuntua hartu behar du nire iritziz.

Orain, betiko problema dator, ea jokabide iraultzaile hori obra guztian ikusi behar den edo gizonaren osotasunean ikusi behar den. Nire ustez osotasunean askoz errezago da hori ikustea, zeren bestela gertatuko litzateke idazleok eta eman dezagun artistek posizio desberdinak izatea, esan nahi dut: eskultore edo margolari batek noraino egin dezakeen lan iraultzailerik, askotan ez da garbi ikusten; badaiteke idazle baten nobela batetan ere garbi ez ikustea, zeresanik poesia batetan, orain obraren osotasuna eta pertsonaren osotasuna hartuta jokabide hori ikusi behar da.

Gero beste problema bat aipatu behar da, zer harremana izan behar duen idazle batek, intelektual batek, indar politikoeekin, partidu politikoeekin. Politikariak nolabait esan jokutzen du plano taktiko batetan, idazleak berriz jokutzen du askoz estratejikoago, hortik sortzen diren kontradikzioak onak izan daitezke, baina praktikan nahiko zaila izaten da, hor aipatu daitezke nik aspaldidanik eredutzat izan ditudan bi autore famatu, Sartre eta Bertrand Russell, biak ere beti indar politikoeekin problema handiekin ibili zirenak. Zergatik?, ba idazleak eta politikoak planteamendu desberdinak dituztelako, epe desberdinetara jokutzen dutelako. Orain, nik uste dut kontradikzio hauek aberasgarriak izan daitezkeela, eman dezagun Sartrek PCrekin hartu zuen posizioa, hori oso sintomatikoa izan zen, ez dut uste kaltegarria denik, berez.

Organizazio politikoak guztiz beharrezkoak dira. Ez du sentidurik idazle batek «bueno, ni iraultzaile naiz» esatea eta gero partidu politikoetatik aparte jartzeak. Nire ustez Euskal Herrian ere idazle garenok eta iraultzaren alde gaudenok militatu egin behar dugu; nola? Hor problema latzak datoz, disziplina problemak eta abar, oso oreka zaila da.

Nik esango nuke bukatzeko hemen idazle batek bere herri zapalduarekin bat eginda lan egin behar duela, iraultzaren bidetik lan egin behar duela, eta farsante guztien salaketa etengabea egin behar duela eta hori ez da erreza zeren farsanteen kopurua izugarri handia delako.